

# LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMAREN TAKTIKA OPERATIBOAK

2023ko argitaraldia



**(112)**

**SOS DEIAK**

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMAREN TAKTIKA OPERATIBOAK  
TÁCTICAS OPERATIVAS DEL SISTEMA VASCO DE ATENCIÓN DE EMERGENCIAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

# LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMAREN TAKTIKA OPERATIBOAK 2023ko argitaraldia

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**SEGURTASUN SAILA**  
Segurtasun Sailburuordetza  
*Larrialdiei Aurre Egiteko eta  
Meteorologiako Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD**  
Viceconsejería de Seguridad  
*Dirección de Atención de Emergencias  
y Meteorología*

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2023

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 6.a, 2023ko maiatza  
Ale-kopurua: 400 ale  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Segurtasun Saila  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Gráficas Irudi, S. L.  
Fotokonposaketa eta imprimaketa: Uzbina Kalea, 25, bajo, 01015 Vitoria-Gasteiz, Álava  
ISBN: 978-84-457-3694-4  
LG: LG G 201-2023

## AURKIBIDEA

Taktika operatiboen zerrenda orokorra.....	9
Taktika operatiboetako xedapen komunak.....	19
Larrialdiei aurre egiteko euskal sistemaren taktika operatiboak .....	27
1.- DESAGERTUTAKO PERTSONA.....	29
2.- MENDIALDEA/LANDA/HIRIEN KANPOALDEA (MENDI).....	33
3.- URETAN (URA) .....	45
4.- SUTEAK (SUTEGI).....	59
5.- SALGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEA (TPC/TPF).....	77
6.- INDUSTRIA.....	85
7.- TRENBIDEA.....	93
8.- ABIAZIOA.....	101
9.- HIRIA (HIRI).....	119
10.- NRBQ.....	125
11.- GASA.....	137
12.- INGURUMENA.....	143
13.- EGURALDI KASKARRA (METEO) / BASOAK SU HARTZEKO ARRISKUA (BASOA).....	155
14.- HORNIDURA (ERAMAN).....	167
15.- LUIZIAK - LUR-IRRISTATZEAK .....	171
16.- EBAKUAZIOA-OSTATUA .....	179
17.- URTEGIAK .....	183
18.- ZIRKULAZIO-ISTRIPUAK (TG).....	189
19.- BIKTIMA ASKOKO INTZIDENTEAK (IMV) .....	201
20.- APARTEKO INTZIDENTE BORTITZAK (IEV).....	209
21.- BILAKETA ETA ERRESKATEA KOLAPSATUTAKO EGITURETAN: BREC.....	215
22.- JOKABIDE AUTOLITIKOEN ONDORIOZKO INTZIDENTEAK: ICA.....	221
23.- LAN-ISTRIPUAK (PG1) .....	227
24.- BIDE PUBLIKOETAKO ISTRIPUAK (PG3) .....	233
25.- ANTOLA.....	237
26.- LARRIALDIETARAKO PLANAK AKTIBATZEA .....	241
PROZEDURA OPERATIBOAK.....	257



**AGINDUA, 2023ko martxoaren 2koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez seigarren aldiz aldatzen baita Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen agindua.**

Herrizaingo sailburuaren 2001eko abuztuaren 1eko Aginduaren bidez, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartu ziren eta Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzua sortu zen (2001eko irailaren 13ko EHAA, 178. zk.). Agindu hori, gerora, aldatu egin zen, honako hauen bidez: Herrizaingo sailburuaren 2007ko martxoaren 20ko Agindua (2007ko apirilaren 16ko EHAA, 72. zk.); Herrizaingo, Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuaren 2012ko urriaren 8ko Agindua (2012ko urriaren 24ko EHAA, 207. zk.); Segurtasuneko sailburuaren 2016ko otsailaren 1eko Agindua (2016ko irailaren 9ko EHAA, 26. zk.); Segurtasuneko sailburuaren 2018ko azaroaren 20ko Agindua (2018ko abenduaren 4ko EHAA, 233. zk.), eta Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2020ko abenduaren 4ko Agindua (2020ko abenduaren 18ko EHAA, 253. zk.).

Azken urteotako esperientzia kontuan hartuta, taktika operatibo jakin batzuk berrikusi dira, gaur egungo errealitatera moldatzeko eta erantzunaren efikazia areagotzeko. Halaber, hiru taktika berri gehitu dira, egoera berezi batzuetan jarduteko prozedurak hobetzeko:

- 1.– ANTOLA taktika; ekitaldi baten estaldura egokia bermatzeko planifikatutako gailuei lotutako taktika, segurtasunaren eta asistentzia sanitarioaren ikuspegitik begiratuta, eta kontuan hartuta ekitaldiaren ezaugarriak eta aurreikusteko moduko arriskuen identifikazioa.

2.– PFORU A-B-G taktika; foru-aldundien lurralde-plan eta plan bereziak aktibatzea.

3.– PUDALA taktika; udal-planak aktibatzea.

Taktika operatiboak berregitean, zerikusia duten erakundeen eta entitate publikoen eta pribatu-entitateen lankidetzak izan dugu, betiere Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa betez. Era berean, taktika operatibo berriek Euskadiko Babes Zibilerako Batzordearen aldeko irizpena jaso zuten, 2022ko abenduaren 22an.

Hori guztia kontuan izanik, hau

EBAZTEN DUT:

### ***Artikulu bakarra.***

1.– Aldatu egiten dira Herrizaingo sailburuaren 2001eko abuztuaren 1eko Aginduaren eranskineko II. atalean aurreikusitako taktika operatiboak (Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzen ditu Agindu horrek, eta Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzua sortzen).

2.– Aldatutako teknika operatiboak zerikusia duten zerbitzuei jakinaraziko zaizkie.

### **AZKEN XEDAPENA**

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 2a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO

# **TAKTIKA OPERATIBOEN ZERRENDA OROKORRA**





<b>1.- DESAGERTUTAKO PERTSONA:</b>	<b>29</b>
– <b>M0:</b> Pertsona baten desagerpena jakinaraztea, non dagoen ez denean jakin.	30
<b>2.- MENDIALDEA/LANDA/HIRIEN KANPOALDEA (MENDI):</b>	<b>33</b>
– <b>M1:</b> Mendiko/landako eta/edo hirien kanpoaldeko erreskateak. Mendialdean, landan eta/edo hirien kanpoaldean dauden pertsonen denetariko erreskateak.	34
– <b>M2:</b> Mendian, landan eta/edo hirien kanpoaldean bilatzea. Mendian, landan edo hirien kanpoaldean desagertutako eta/edo galdutako pertsonen bilaketak.	37
– <b>KOBA:</b> Lurpeko erreskateak, mendian edo landan, espezializazioa edo erreskateko bitarteko eta/edo teknika bereziak behar direnean.	42
<b>3.- URETAN (URA):</b>	<b>45</b>
– <b>U1:</b> Itsas salbamendua (kanpoko urak). Itsaso zabalean pertsonak eta/edo ondasunak salbatzea (baita nabigatzen ari diren ontzietako suteetako salbamenduak ere).	46
– <b>U2:</b> Itsasertzeko salbamendua. Itsasertzean edo kostaldean dauden pertsonak eta/edo ondasunak salbatzea edo bertan dauden gorpuak berreskuratzea.	49
– <b>U3:</b> Salbamendua barruko uretan. Ibaietan edo urtegietan dauden pertsonak erreskatatzea edo bertan dauden gorpuak berreskuratzea.	54
<b>4.- SUTEAK (SUTEGI):</b>	<b>59</b>
– <b>SG1:</b> Hiriko/landako sutea. Hirian eta/edo hiritartutako landa-eremuan sortutako sutea.	60
– <b>SG2:</b> Baso-suteak. Suteak basoan, sasietan, larretan, laboreetan eta antzekoetan.	65

– <b>SG3:</b> Industria-sutea. Jarduera industrialak duen edozein enpresatan edo biltegitan sortutako sutea, hirigunean zein landan.	69
– <b>SG10:</b> Hiri altzarien sutea.	73
<b>5.- SALGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEA: TPC/TPF</b>	<b>77</b>
Errepideko zirkulazioko edo trenbideko edozein istripu, gai arriskutsuak tartean dituenak:	
– <b>TPC1-TPF1-</b> Matxura edo istripua, garraioko ibilgailuari edo konboiari aurrera egitea galarazten diona; hala ere, garraiatutako gai arriskutsuen edukitzailea egoera onean dago ez baita irauli edo errailetik atera.	77
– <b>TPC2-TPF2-</b> Istripua gertatzean, edukitzailea hondatu egin da edota irauli edo errailetik atera da; hala ere, ez dago edukiaren ihesik edo isuririk.	77
– <b>TPC3-TPF3-</b> Istripua gertatzean edukitzailea hondatu egin da eta edukiak ihesa edota isuria du.	77
– <b>TPC4-TPF4-</b> Edukitzailea hondatuta edo sutan dago eta eduki-ihesa dago, sugarrak eta guzti.	77
– <b>TPC5-TPF5-</b> Edukiak eztanda egin du eta edukitzailea suntsitu.	77
<b>6.- INDUSTRIA:</b>	<b>85</b>
– <b>KIMIKA:</b> Intzidentea enpresan gai arriskutsuekin (oliobideak eta pirotekniak barne). Jatorri kimikoa duten istripuak dira, edozein enpresatan sor daitezkeenak, baita aitortzeko beharra dutenetan ere. (SEVESO).	86
<b>7.- TRENBIDEA</b>	<b>93</b>
– <b>T1:</b> Harrapatzea. Pertsonak zein ibilgailuak harrapatzea.	94
– <b>T2:</b> Errailetik ateratzea, elkar jotzea, talka edo sutea.	97
<b>8.- ABIAZIOA:</b>	<b>101</b>
– <b>TXORI 1:</b> Aireontzi-istripua aireportutik kanpo. Aireontzi bat tartean den edo izan daitekeen edozein intzidente.	102
– <b>TXORI-A:</b> Aireontzi-istripua Vitoria-Gasteizko Aireportuan (Foronda)	107
– <b>TXORI-B:</b> Aireontzi-istripua Bilboko Aireportuan (Loiu)	111

– <b>TXORI-G:</b> Aireontzi- istripua Donostiako aireportuan (Hondarribia)	115
<b>9.- HIRIA (HIRI):</b>	<b>119</b>
– <b>H1:</b> Hiriko erreskatea. Hirian pertsonak erreskatatzea (harrapatuta igogailuetan, barruko patioetan eta abarretan).	120
– <b>HA:</b> Hirian arriskuak detektatzea (fatxadak, teilatuak, zuhaitzak eta abar erortzeko arriskua).	123
<b>10.- NRBQ:</b>	<b>125</b>
– <b>N:</b> NUKLEARRA	126
– <b>GAROÑA 0:</b> Santa Maria Garoñako zentral nuklearreko instalazioetan gertatutako istripuak. Ez da kanpoko laguntzarik behar.	128
– <b>GAROÑA 1:</b> PENBU garatzea.	129
– <b>RBQ:</b> Intzidente hauetan, tartean dira material edo instalazio erradioaktiboak / elementu, material edo hondakin biologikoak / elementu edo material kimikoak, aurreikusita ez daudenak SG3, KIMIKA, SEVESO, TPC/TPF ingurumen-kutsadurako taktiketan, eta Santa Maria Garoñako zentral nuklearrari eragiten ez diotenak.	133
<b>11.- GASA:</b>	<b>137</b>
– <b>GAS:</b> Ihesa, sutea, leherketa. Gas hidrokarburoen (metanoa, propanoa, butanoa, gas naturala) ihesa, sutea edota leherketa gertatu den guztietan.	138
<b>12.- INGURUMENA</b>	<b>143</b>
– <b>IGA:</b> Airearen kutsadura	143
– <b>IGR:</b> Ibai/urtegiaren kutsadura.	143
– <b>IGM:</b> Itsaso/marea-gunearen kutsadura. Itsasoko urei eta mareak eragindako guneei eragiten die (itsasadarrak, estuarioak..)	143
– <b>IGT:</b> Lurraren kutsadura – hondakinak. Lurrari eragiten dio, gainera nekazaritza, industria edo etxeko jatorria duen edozein hondakin mota ere ager daiteke.	143

<b>13.- EGURALDI KASKARRA (METEO) / BASOAK SU HARTZEKO ARRISKUA (BASOA)</b>	<b>155</b>
<b>1.- Eguraldi kaskarrari buruzko informazioa / Basoak su hartzeko arriskuari buruzko informazioa:</b>	156
– <b>METEO</b>	156
– <b>BASOA:</b> Basoak su hartzeko arriskuari buruzko informazioa.	158
<b>2.- Eguraldi kaskarrak eragindako intzidenteen kudeaketa:</b>	159
– <b>U HOLDE:</b> Uholdeak	159
– <b>ELURRA :</b> Elurteak	162
– <b>GALERNA:</b> Galernak	165
– <b>HAIZEA:</b> Haizeak	166
<b>14.- HORNIDURA (ERAMAN)</b>	<b>167</b>
– <b>ERAMAN:</b> Herritarrak eta haien ondasun materialak nahitaezkoaz, oinarrizkoaz eta beharrezkoaz hornitzeko burutu behar diren ekintza guztiak (ezinbestez eta presako izaeraz).	168
<b>15.- LUIZIAK - LUR-IRRISTATZEAK</b>	<b>171</b>
– <b>LURRA:</b> Lur-higidurek eragindako intzidente-mota guztiak (luiziak, lur-irristatzea, etab.), eta pertsonaren bat lurperatuta egonez gero, haren erreskatea ere.	172
– <b>SISMO:</b> Mugimendu sismikoak detektatzea Euskadin edo/ eta erkidego mugakideetan.	176
<b>16.- EBAKUAZIOA-OSTATUA</b>	<b>179</b>
– <b>HOTELA:</b> Intzidente batek ukitutako pertsonen ebakuazioa eta/edo ostatua eman beharra eskatzen duen egoera, edonolakoa.	180
<b>17.- URTEGIAK</b>	<b>183</b>
<b>1.- Urtegiak urez husteko eragiketen inguruko jakinarazpen informatzea:</b>	00
– <b>ULLIBA:</b> Uribarri Ganboa urtegiko eragiketen jakinarazpenen kudeaketa.	184

– <b>UNDURR:</b> Undurraga urtegiko eragiketen jakinarazpenen kudeaketa.	184
– <b>URRUNA:</b> Urrunaga urtegiko eragiketen jakinarazpenen kudeaketa.	184
– <b>SOBRON:</b> Sobron urtegiko eragiketen jakinarazpenen kudeaketa.	184
– <b>AÑARBE:</b> Añarbe urtegiko eragiketen jakinarazpenen kudeaketa.	184
<b>2.- Presa/urtegiako intzidenteen kudeaketa:</b>	185
– <b>URTEGI:</b> Presak edo urtegiak apurtzeko edota gainezka egiteko posibilitatearekin zerikusia duten era guztietako intzidentek.	185
<b>18.- ZIRKULAZIO-ISTRIPUAK (TG)</b>	<b>189</b>
– <b>TG1:</b> Zauriturik gabeko zirkulazio-istripu guztiak.	190
– <b>TG2:</b> Zaurituak edota harrapatutakoak dituzten zirkulazio-istripu guztiak.	194
<b>19.- BIKTIMA ASKOKO INTZIDENTEAK (IMV)</b>	<b>201</b>
– <b>IMV:</b> Tartean hainbat ibilgailu eta/edo autobusak, trenak, itsasontziak, aireontziak dituzten istripu guztiak, edo egiturazko kolapsoak, pertsona askori eragiten dietenak: hildakoak, zaurituak eta/edo harrapatuta geratu direnak.	202
<b>20.- APARTEKO INTZIDENTE BORTITZAK (IEV)</b>	<b>209</b>
– <b>IEV:</b> Nahitako intzidentek, gertatzen ari direnak, indarrez eraginak -egitez edo mehatxuz-, ekintza oldarkor zein bortitzen bitartezkoak, norbanakoek edo taldeek eginak, pertsoneri, ordenari, ondasunei edo ingurumenari garrantzizko kalteak eragiteko modukoak. Intzidente horietara honako gertaera hauek biltzen dira: ekintza terroristak, bahiketak, mehatxu bortitzak, manifestazio bortitzak eta aurrekoekin pareka daitekeen beste edozein. Ertzaintzak zehaztuko du zein diren aparteko intzidente bortitzak (IEV), zuzenean edo SOS-DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak gertaeraren berri eman eta gero.	209

<b>21.- BILAKETA ETA ERRESKATEA KOLAPSATUTAKO EGITURETAN: BREC</b>	<b>215</b>
– <b>BREC:</b> Egituraren kolapsoa eragiten duten intzidenteak, eta horietan biktimak edo pertsona desagertuak egon daitezke.	216
<b>22.- JOKABIDE AUTOLITIKOEN ONDORIOZKO INTZIDENTEAK: ICA</b>	<b>221</b>
– <b>ICA:</b> Pertsona batek bere burua hil nahi duela modu inplizituan edo esplizituan erakusten duten ebidentziekin lotutako jarduketak.	222
<b>23.- LAN-ISTRIPUAK (PG1)</b>	<b>227</b>
– <b>PG1:</b> Lanagatik edo lana dela eta izandako gorputz-kalte guztiak, baldin eta sorburutzat badute kanpoko kausa baten ekintza bat, bat-batekoa edo bortitza bera, edota jasandako lesioak, kausa edozein dutela.	228
<b>24.- BIDE PUBLIKOETAKO ISTRIPUAK (PG3)</b>	<b>233</b>
– <b>PG3:</b> Bide publikoan gertatutako edozein istripu, zaurituak ere badituena.	234
<b>25.- ANTOLA</b>	<b>237</b>
– <b>ANTOLA:</b> Planifikatutako baliabideei lotutako taktika, segurtasunaren eta osasun-laguntzaren ikuspegitik ekitaldi bat bermatzeko, haren ezaugarriak eta aurreikus daitezkeen arriskuen identifikazioa kontuan hartuta.	238
<b>26.- LARRIALDIETARAKO PLANAK AKTIBATZEA</b>	<b>241</b>
<b>EUSKO JAURLARITZA</b>	
– <b>PEE: KANPOKO LARRIALDI PLANAK</b>	241
– <b>PLABI: EUSKADIKO BABES ZIBILEKO PLANA</b>	241
– <b>PUHOLDE: UHOLDE ZIOZKO LARRIALDI PLANA</b>	241
– <b>PBASOA: BASO-SUTEETARAKO LARRIALDI PLANA</b>	241
– <b>PSISMO: ARRISKU SISMIKORAKO LARRIALDI PLANA</b>	241
– <b>PTPCF: SALGAI ARRISKUTSUAK ERREPIDEZ ETA TRENBIDEZ GARRAIATZEAK DAKARREN ISTRIPU-ARRISKUARI AURRE EGITEKO LARRIALDI PLANA</b>	241

– PRADIO: ARRISKU ERRADIOLOGIKORAKO LARRIALDI PLANA	241
– PIGM: ITSASERTZAREN KUTSADURARI AURRE EGITEKO LARRIALDI PLANA. ITSASERTZA	241
– PTXORI: AERONAUTIKAKO LARRIALDIETARAKO PLAN BEREZIA	241
<b>FORU ALDUNDIAK</b>	
– LURRALDE PLANAK	241
– PLAN BEREZIAK	241
<b>UDALERRIAK</b>	
– LARRIALDIETARAKO UDAL PLANAK	241





# **TAKTIKA OPERATIBOETAKO XEDAPEN KOMUNAK**



## 1. SARRERA

Istripuen ondorioz larrialdi egoerak sortzen dira, normaltasuna hausten dutenak. Egoera horien aurrean, erreakzioa izaten da ondorioei aurre egiteko erantzun batzuk abiaraztea, izan diren biktimei laguntzeko, horiek erreskatatzeko, eta kalte eta galera gehiago ez izateko. Eta hartarako, istripuari aurre egiten zaio, istripuaren zabalkundea murriztu eta haren intentsitatea neutralizatzen da eta, behin istripua amaituta, eragina jasan duten oinarrizko zerbitzuak berriro abian jartzen dira.

Istripuei aurre egiteko, gerta daiteke zenbait zerbitzu (baliabide materialak eta giza baliabideak) mobilizatu behar izatea. Baina, zerbitzu horien funtzioak aldeztatik zehaztuta eduki beharko dira, eta horretaz gain, zehatz-mehatz koordinatuta egin beharko dituzte esku-hartzeak, hain justu ere, helburu komuna ahalegin txikienarekin eta eraginkortasun handienarekin lortu ahal izateko. Jarduketa horiek programa jakin bati jarraitu behar diote, ahalik eta zehatzena den programa bati –istripu-motaren eta istripuari berari eragiten dioten faktoreen inguruan eskura dagoen informazioa kontuan hartuta–. Programa hori kasuan-kasuko jarduera-prozeduran jaso behar da, aldeztatik prestatu behar da eta aplikatzen den arloan dauden arriskueta egokituta egon behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, baliabideek, bitartekoez, planek, prozedurek eta protokoloek osatzen dute (SVAE, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema) Larrialdiak Kudeatzeko Sistema, zeinak integratu egiten baititu edozein larrialdiri eta urgentziari aurre egiteko baliabideak. Kudeaketa sistema horren tresna nagusietako bat taktika operatiboak dira, Dekretu honek arautzen dituenak, hain zuzen: 153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, Larrialdiei Aurre egiteko Bidea-LABI Euskadiko Babes Zibileko Plana onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistema

integratzeko mekanismoak arautzen dituenak. Dekretu hori urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuak aldatu zuen, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI Euskadiko Babes Zibileko Planaren ezohiko berrikuspena onartzen duenak.

## **2. TAKTIKA OPERATIBOEI BURUZKO KONTZEPTUA**

2.1 Taktika operatiboak Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren arloko eskumena duen Sailak onartzen ditu, beti ere, zerbitzu eta administrazio interesdunei entzun eta Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen txostena jaso ondoren. Taktika horiek apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuak, Larrialdien Kudeaketari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, IV. Kapituluari aipatzen dituen egoera ez-katastrofikoetan larrialdiei aurre egiteko sistemaren erantzun-mekanismoak dira; eta SOS-Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroko oinarrizko tresnak ere badira.

2.2 Horretarako, deia edo alarma denbora errealean identifikatzeko eta ebaluatzeko prozedurak zehazten dituzte, bai eta baliabideak eta bitartekoak mobilizatzeko hartu behar diren neurriak eta irizpideak ere, gertakaria zein motatakoa den eta larrialdia zein fasetan dagoen kontuan hartuta. (Larrialdien Kudeaketari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuko 42. artikulua).

## **3. TAKTIKA OPERATIBOEN EGITURA**

Taktikek izan litekeen gertaera tipifikatu bati erantzun bat emateko prestatutako plan sinoptiko batena bezalako egitura daukate; gertaeraren aurrean, deia edo alarma denbora errealean identifikatzeko eta ebaluatzeko prozedurak deskribatzen dituzte, bai eta mobilizatu litezkeen zerbitzuak, baliabideak edo bitartekoak zein horiek egin beharreko zereginak ere, hau da, egoera, gertakari mota eta larrialdi fasea kontuan hartuta aurrez ezarritako zereginak. Halaber, zerbitzuak, bitartekoak eta baliabideak mobilizatzeko irizpide eta protokoloak aurreikusten dituzte.

## **4. BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN KATALOGOA**

4.1. Larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak berezko baliabideen eta bitartekoen katalogoa dauka, etengabe eguneratzen dena eta honako hauek kontuan hartzen dituena: baliabide edo bitarteko bakoitzak duen erantzuteko gaitasuna (denboraren, kalitatearen eta kantitatearen aldetik), titularitatea, kopurua, egoera, baliatu ahal izateko aukerak, mobilizazio-sistema egonkorrak eta erantzuteko denborak.

4.2. Larrialdien Kudeaketari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuko 41. eta 42. artikuluetan zerrendatzen diren erakunde eta entitate publiko zein pribatuak arlo horretan laguntzeko betebeharra daukate; eta horregatik hauei buruzko informazioa eman behar dute: kokapena, langile-dotazioa, baliabide teknikoak zerbitzuak emateko sistemak eta, oro har, urgentzia- edo larrialdi-egoeretan eskuragarri dauden baliabideak, baita horien inguruko aldaketa garrantzitsuak ere.

## **5. TAKTIKA AKTIBATZEA**

5.1. SOS-Deiaketek gertaera bat jakinarazi, eta hori taktika operatiboak erabiltzeko aurreikusitako gertaeratzat jotzen bada, SOS-Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroko operadoreak egin beharreko esku-hartzea aurrera eramateko beharrezkoak diren datuak jaso eta bete beharko ditu. Horretarako, kasuan kasuko taktika operatiborako aurreikusita dauden oinarrizko datuak jasotzeko inprimakia erabili beharko du.

5.2. Gertaera bati buruzko datuak jaso eta gertakaria katalogatu ondoren, kasuan kasuko taktika aktibatuko da, taktikan bertan ezartzen denaren arabera.

## **6. BALIABIDEAK MOBILIZATZEA**

6.1 Taktika operatibo bakoitzean aurreikusitako baliabideen mobilizazioa, taktikan bertan ezarritakoaren arabera egingo da, fase hauei jarraituz:

- a) Fase automatikoa: taktikan automatikoki mobilizatzeko agertzen diren baliabideak mobilizatuko dira, jarduketaren jarraipena egingo da, baliabideak koordinatuko dira eta horien mobilizazioari neurri zuzentzaileak ezarriko zaizkio.
- b) Fase geroratua: Larrialdietan Koordinatuta esku hartzeko Zerbitzuko teknikariak eskatuta, baliabideak mobilizatuko dira, eta teknikari horrek eskatzen dituen kudeaketa guztiak ere egin eta dokumentatuko dira.

6.2. Mobilizazio-irizpideek, beti ere, larrialdiak eragiten dituen beharrak izan beharko dituzte kontuan, eta printzipio hauek izan behar dituzte oinarri: erantzuna berehalakoa izatea, larrialdia jazotzen den lekuarekiko hurbiltasuna, bitartekoen eskuragarritasuna, profesionalizazioa, esku-hartzen dutenen espezializazioa, baliabideen eta bitartekoen osagarritasuna, eta subsidiaritatea.

## **7. TAKTIKA OPERATIBOA GARATZEA**

7.1. Koordinazio teknikoak: SOS-Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa koordinazio teknikoaz arduratzen da, taktika operatiboan ezarritakoa gara dadin. Koordinazioa esaten denean, gertakari batean sortzen den informazioa zentralizatzea eta bideratzea esan nahi da, baita batera lan egiten eta baliabide esku-hartzaileen kudeaketa optimizatzen laguntzen duten ekintza guztiak egitea ere. Mobilizazio-fase geroratuan, lan horiek SOS-Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan dagoen Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzuko teknikariak zuzendu eta gainbegiratu dituzte, edo, bestela, SOS-Deiaketan aktibatutako teknikariak.

7.2. Esku-hartze materiala:

- a) Urgentzia edo larrialdi bati aurre egitea administrazio baten edo zerbitzu administratibo baten eskumena denean eta beste zerbitzu batzuen laguntza behar ez denean, SOS-Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak administrazio edo zerbitzu administratibo horri alerta jakinarazi eta haren jarraipena egin beharko du, besterik ez.

- b) Larrialdiari erantzuteko esku-hartze materiala mobilizatutako zerbitzuek burutuko dute, beren agintarien menpe eta aplikatutako taktika operatiboan zehazten diren zereginak banatzeko irizpideei jarraituz.

Baliabide edo bitarteko esku-hartzaile gehiagoren laguntza behar denean, Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren arloko eskumena daukan Sailak eskainiko du, koordinazioa aurrera eramateko, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren laguntza teknikoa eta Larrialdietan Koordinatuta Esku-hartzeko Zerbitzuko teknikaria, SOS-Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko zentroan dagoena edo SOS-Deiakek aktibatutakoa. Teknikari horren lana izango da aplikatu beharreko taktikan aurreikusitako koordinazioaz arduratzea; eta horrek esan nahi du, ondorio hauetarako, esku-hartzaileen ekintza-batasuna lortzen saiatzea eta SOS-Deiakekiko lotura gisa jardutea.

Beharrezkoa bada, sail horretako larrialdiei aurre egiteko teknikariak gertakariaren lekuan bertaratuko dira eta Aginte Postu Aurreratuan integratuko dira, bertan baitaude istripuan laguntzen duten zerbitzuetako ordezkariak; Gainera, postu horretatik eskuragarri dauden baliabide eta bitartekoen jarduketak zuzentzen dira, esku-hartzaileekin bat etorrita, operazioen ekintza-batasuna lortzeko helburuarekin. SOS-Deiari berehala jakinaraziko zaio aginte postu bateratua osatu dela, baita postu horretan zeintzuk dauden ere.

7.3. Ekintza-batasuna ezartzeko neurriak: Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko zuzendariak edo, horrek ezin badu, Larrialdietan Koordinatuta Esku-hartzeko Zerbitzuko arduradunak, larrialdiari aurre egiteko unean uneko jarraibideak xeda ditzake, edo esku-hartzaileen arteko pertsona bat –bere dohainak kontuan izanik– operazioen zuzendari izenda dezake, beti ere ondoko kasuetan:

- a) pertsonen bizitza arrisku larrian dagoenean.
- b) esku hartzen dutenen ekintza-batasunari eutsi beharregatik ezinbestekoa denean.

Erabaki horiek hartu ahal izango dira, baldin eta premia handiko aparteko arrazoiak badaude. Larrialdietan Koordinatuta Esku-hartzeko



Zerbitzuko teknikariak, SOS-Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan dagoenak edo SOS-Deiak aktibatu duenak, hartuko ditu erabaki horiek, edo, hori ez badago, Larrialdiak Koordinatzeko Zentroko txanda-arduradunak. Mobilizatua izan den Larrialdietan Koordinatuta Esku-hartzeko Zerbitzuko teknikariak, Aginte Postu Aurreratuan integratu ondoren, bere gain har ditzake operazioak zuzentzeko lana.

Erabaki edo jarraibide horiek Aginte Postu Aurreratuan integratutako zerbitzuen arduradunei jakinarazi beharko zaizkie, SOS-Deiaren bitartez edo Larrialdietan Koordinatuta Esku-hartzeko Zerbitzuko teknikariaren bitartez, baldin eta teknikari hori Aginte Postu Aurreratuan integratuta badago.

## **8. GERTAKERIAREN AMAIERA**

Operazio-zuzendariak joko du amaitutzat gertaera, baldin eta zuzendaririk izendatu bada, edo, bestela, Larrialdietan Koordinatuta Esku-hartzeko Zerbitzuko teknikariak. Gertaera amaitutakoan, larrialdiari aurre egiteko abian jarritako dispositiboa desaktibatuko da.

**LARRIALDIEI AURREGITEKO  
EUSKAL SISTEMAREN  
TAKTIKA OPERATIBOAK**



# **1.- DESAGERTUTAKO PERTSONA**

- M0: Desagertutako pertsona.**

## **DESAGERTUTAKO PERTSONA: M0**

**-M0:** Pertsona baten desagerpena jakinaraztea, non dagoen ez denean jakin

### **DATUAK BILTZEA:**

SOS-DEIAKek bete beharreko datuak, mota honetako intzidente baten berri ematen diotenean:

#### **– LEKUA:**

- Pertsonaren ohiko bizilekua.
- Udalerria, kalea, solairua.
- Bizilekuaren telefonoa.

#### **– INTZIDENTEAREN OINARRIZKO DATUAK**

- Intzidentearen azken gertaleku ezagunaren/ustezkoaren eguna eta ordua, gutxi gorabehera.
- Intzidentearen garapena.
- Desagertuak eta/edo galduak:
  - Nor (Filiazioa) eta zenbat.
  - Adina.
  - Egoera fisikoa eta psikikoa.
  - Ekipamendua.
  - Eskuko telefonoaren edo telefono finkoaren zenbakia.
  - Desagertutako eta/edo galdutako pertsonaren ibilgailua: kokapena, marka, modeloa eta matrikula.
  - Bizilekua.
- Aurreikusitako ibilbidea: bidearen deskripzioa eta aurreikusitako iraupena.
- Jarduera-mota: mendi-ibilak / ibilaldi neurtua / fruitu-bilketa / beste batzuk.
- Jakinarazlearen eskuko telefonoaren edo telefono finkoaren zenbakia.
- Baldintza meteorologikoak.

#### **– BERRIEMAILEAREN DATUAK ETA INTZIDENTEAREKIN DUEN LOTURA**

**M0: PERTSONA BAT NON DAGOEN JAKITEN EZ DENEAN,  
DESAGERPENA KOMUNIKATZEA**

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	ZEREGINAK	FASEA
SOS-DEIAK		Arreta 112. Koordinazioa. Zerbitzuen aktibazioa. Kontrola eta jarraipena.	AUTOMATIKOA
ERTZAINZAREN AGINTE ETA KONTROL ZENTROA: ARDATZ		Informazioa helaraztea.	
UDALTZAINGOA		Informazioa helaraztea.	
OSAKIDETZA		Ebakuazioen informazioa/ ospitaleratzeak. Arreta larrialdi-zerbitzuan.	
ESKU HARTZEKO ZERBITZUA		M2 taktika aktibatzeke / ez aktibatzeke erabakia.	



## **2.- MENDIA**

- **M1: Mendiko/landako eta/edo hirien kanpoaldeko erreskateak.**
- **M2: Mendian, landan eta/edo hirien kanpoaldean bilatzea.**
- **KOBA: Lurpeko erreskateak, mendian edo landan.**



## **MENDIKO EDOTA LANDA EREMUKO ERRESKATEA: M1**

- **M1:** Mendiko/landako eta/edo hirien kanpoaldeko erreskateak. Mendialdean, landan eta/edo hirien kanpoaldean dauden pertsonen denetarikoko erreskateak.

*Mendi eremua:* mota guztietako mendizaletasuna, mendiko ibilaldiak, baita eskalada –bertan harkaitz interesgarriak badaude– ere egin daitekeen eremua.

*Landa eremuak:* biztanle gutxiko lurraldea, non jarduera ekonomiko nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza baitira.

*Hirien kanpoaldea:* aldirietako hiriguneak, hiri baten hirigunea inguratzen duten eremu irekiak.

## **DATUAK BILTZEA:**

SOS-DEIAKek bete beharreko datuak, mota honetako intzidente baten berri ematen diotenean:

### **– LEKUA**

- Izena eta udalerria.
- Sarbideak (errepidez, pistaz edo bidez). Koordinatuak: AML (Advanced Mobile Location / Kokapen Mugikor Aurreratua), APP SOS Deiak, WhatsApp, GPS.
- Tokiaren ezaugarriak eta toki-mota.

### **– ISTRIPUAREN OINARRIZKO DATUAK**

- Intzidentearen data eta ordua (gutxi gorabehera).
- Intzidentearen garapena.
- Istripua izandakoen kopurua eta egoera:
  - Adina
  - Egoera fisikoa eta psikikoa
  - Ekipamendua
- Filiazioa (ezaguna bada)
- Istripua izandakoaren egoera:
  - Horman zintzilik
  - Istripua izan duena irispide zaileko lekuan dago
- Eskuko telefonoaren edo telefono finkoaren zenbakia
- Baldintza meteorologikoak

### **– BERRIEMAILEAREN DATUAK ETA INTZIDENTEAREKIN DUEN LOTURA**

## MENDIKO EDOTA LANDA EREMUKO ERRESKATEA: M1

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	MOBILIZAZIOA
SOS-DEIAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arreta 112.</li> <li>- Koordinazioa.</li> <li>- Zerbitzuen mobilizazioa.</li> <li>- Kontrola eta jarraipena.</li> </ul>	AUTOMATIKOA
ERTZAINZA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Intzidentearen kokapena.</li> <li>- Sarbideen definizioa.</li> <li>- Sarbideen kontrola.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: ATAL AERONAUTIKOA (HELIKOPTEROAK)	Istripua izan duenaren egoera fisikoa eta/edo bizi-arriskua. Ibilgailua heldu ezin den eremua eta iristeko zaila dena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Intzidentearen kokapena.</li> <li>- Istripua izandakoen erreskatea/salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Ebaluazioa eta informazioa.</li> </ul>	
SUHILTZAILAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Erreskatean laguntzea.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	
OSAKIDETZA	Istripua izandakoak daudela	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erreskatatu beharreko biktimaren ebaluazio medikoaren informazioa helaraztea.</li> <li>- Asistentzia sanitarioa.</li> <li>- Istripua izandakoen sailkapena, hasierako egonkortzea eta lekualdatzea.</li> <li>- Osasun-baliabideen koordinazioa.</li> </ul>	
ESKU HARTZEKO ZERBITZUA		Laguntza / Koordinazioa / Zuzendaritza.	
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: MENDI-ATALA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	MOBILIZAZIOA
SUHILTZAILERAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	GEORATUA
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: ATAL AERONAUTIKOA (HELIKOPTEROAK/ DRONEAK)		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipo eta material teknikoak eramatea.</li> <li>- Istripua izandakoen erreskatea/ salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	
FORU ALDUNDIKO MENDI ETA NATUR INGURUNEKO ZERBITZUA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sarbideen definizioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa .</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	
GURUTZE GORRIA - DYA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea/ salbamendua.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza psikologikoa.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> </ul>	
UDALTZAINGOA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	
UDALEKO BABES ZIBILEKO TALDEA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea/ salbamendua.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> </ul>	
PRENTSA KABINETEA		Berezkoak.	
METEOROLOGIAKO EUSKAL ZERBITZUA		Informazio meteorologikoa.	

## **MENDI EDOTA LANDA EREMUAN BILATZEA: M2**

- **M2:** Mendian, landan eta/edo hirien kanpoaldean bilatzea. Mendian, landan edo hirien kanpoaldean desagertutako eta/edo galdutako pertsonen bilaketak.

Mendi eremua: mota guztietako mendizaletasuna, mendiko ibilaldiak, baita eskalada –bertan harkaitz interesgarriak badaude– ere egin daitekeen eremua.

Landa eremuak: biztanle gutxiko lurraldea, non jarduera ekonomiko nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza baitira.

Hirien kanpoaldea: aldirietako hiriguneak, hiri baten hirigunea inguratzen duten eremu irekiak.

### **DATUAK BILTZEA:**

SOS-DEIAKek bete beharreko datuak, mota honetako intzidente baten berri ematen diotenean:

#### **– LEKUA:**

- Izena eta udalerria.
- Sarbideak (errepidez, pistaz edo bidez). Koordenatuak: AML (Advanced Mobile Location / Kokapen Mugikor Aurreratua), APP SOS Deiak, WhatsApp, GPS.
- Tokiaren ezaugarriak eta toki-mota

#### **– INTZIDENTEAREN OINARRIZKO DATUAK**

- Intzidentearen azken gertaleku ezagunaren/ustezkoaren eguna eta ordua, gutxi gorabehera.
- Intzidentearen garapena
- Desagertuak eta/edo galduak:
  - Nor (Filiazioa) eta zenbat
  - Adina
  - Egoera fisikoa eta psikikoa
  - Ekipamendua
  - Eskuko telefonoaren edo telefono finkoaren zenbakia
  - Desagertutako eta/edo galdutako pertsonaren ibilgailua: kokapena, marka, modeloa eta matrikula
  - Bizilekua

- Aurreikusitako ibilbidea: bidearen deskripzioa eta aurreikusitako iraupena
- Jarduera-mota: mendi-ibiliak / ibilaldi neurtua / fruitu-bilketa / beste batzuk
- Jakinarazlearen eskuko telefonoaren edo telefono finkoaren zenbakia
- Baldintza meteorologikoak

**- BERRIEMAILEAREN DATUAK ETA INTZIDENTEAREKIN DUEN LOTURA**

## MENDI EDOTA LANDA EREMUAN BILATZEA: M2

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	MOBILIZAZIOA
SOS-DEIAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arreta 112.</li> <li>- Koordinazioa.</li> <li>- Zerbitzuen aktibazioa.</li> <li>- Kontrola eta jarraipena.</li> </ul>	AUTOMATIKOA
ERTZAINZAREN AGINTE ETA KONTROL ZENTROA: ARDATZ		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioa helaraztea.</li> <li>- Intzidentearen kokapena.</li> <li>- Baliabidea esleitzea.</li> </ul>	
OSAKIDETZA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ebakuazioen informazioa/ ospitaleratzeak.</li> <li>- Arreta larrialdi-zerbitzuan.</li> </ul>	
UDALTZAINGOA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioa helaraztea.</li> <li>- Intzidentearen kokapena.</li> <li>- Baliabidea esleitzea.</li> </ul>	
SUHILTZAILERAK		Informazioa helaraztea.	
ESKU HARTZEKO ZERBITZUA		Erabakiak hartzea: operatiboa martxan jartzea / operatiboa ixtea.	
ERTZAINZTA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikerketa.</li> <li>- Intzidentearen kokapena.</li> <li>- Sarbideen definizioa.</li> <li>- Sarbideen kontrola.</li> <li>- Sarrera- eta irteera-bideak gaitu larrialdietako ibilgailuetarako.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	GERORATUA
ERTZAINZAREN ZAINZTA ETA ERRESKATE UNITATEA: MENDI-ATALA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoak bilatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Istripua izandakoaren erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoaren ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	
ERTZAINZAREN ZAINZTA ETA ERRESKATE UNITATEA: URETAKO INGURUNEAREN ATALA	Ur-lamina.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Istripua izandakoaren erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	MOBILIZAZIOA
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: ATAL AERONAUTIKOA (HELIKOPTEROAK/ DRONEAK)		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipo eta material teknikoak eramatea.</li> <li>- Bilatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Istripua izandakoan ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	GERORATUA
SUHILTAILEAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoak bilatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Istripua izandakoan erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoan ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	
ERTZAINZAREN TXAKUR-UNITATEA (ERTZANORA)		Bilatzea eta aurkitzea.	
EUSKADIKO LAGUNTZA- TXAKURREN TALDEA			
FORU ALDUNDIKO MENDI ETA NATUR INGURUNEKO ZERBITZUA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sarbideen definizioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	
GURUTZE GORRIA - DYA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Istripua izandakoan erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoan ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> <li>- Laguntza psikologikoa.</li> </ul>	
UDALEKO BABES ZIBILEKO TALDEA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Istripua izandakoan erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoan ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	
OSAKIDETZA	Istripua izandakoak daudela.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Asistentzia sanitarioa.</li> <li>- Ebakuazioa.</li> </ul>	

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	MOBILIZAZIOA
PRENTSA KABINETEA		Berezkoak.	
METEOROLOGIAKO EUSKAL ZERBITZUA		Informazio meteorologikoa.	



## **LURPEKO ERRESKATEAK, MENDIAN EDO LANDAN: Koba**

**Koba:** Koba, leize, putzu, meategi eta abarretan egin beharreko erreskate- eta/edo bilaketa-mota guztiak barne hartzen ditu, mendian edo landa-eremuan egin behar badira, erreskateko bitarteko eta/edo teknika espezializatuak behar direnean.

### **DATUAK BILTZEA**

SOS-DEIAKek bete beharreko datuak, mota honetako intzidenteren baten berri ematen diotenean:

#### **– LEKUA**

- Izena eta udalerrria.
- Sarbideak (errepidez, pistaz edo bidez). Koordinatuak: AML (Advanced Mobile Location / Kokapen Mugikor Aurreratua), APP SOS Deiak, WhatsApp, GPS.
- Inguruaren eta zuloaren ezaugarriak

#### **– ISTRIPUAREN OINARRIZKO DATUAK.**

- Inplikaturak dauden pertsonak:
  - Nor (Filiazioa) eta zenbat
  - Adinak
  - Egoera fisikoa eta psikikoa
  - Ekipamendua
  - Esperientzia
  - Asistentzia sanitarioaren beharra
- Sartzeko eguna / ordua eta irteteko eguna / ordua, gutxi gorabehera
- Ibilgailuak: kokapena, marka, modeloa eta matrikula
- Gertakariaren garapena
- Ahotik biktimarengana dagoen distantzia (denboran)
- Gas toxikoak edo oxigeno falta, ura, lokatza
- Estutasunak
- Baldintza meteorologikoak

#### **– BERRIEMAILEAREN DATUAK ETA INTZIDENTEAREKIN DUEN LOTURA**

## LURPEKO ERRESKATEAK, MENDIAN EDO LANDAN: KOB

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	FASEA
SOS-DEIAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arreta 112.</li> <li>- Koordinazioa.</li> <li>- Zerbitzuen mobilizazioa.</li> <li>- Kontrola eta jarraipena.</li> </ul>	AUTOMATIKOA
ERTZAINZA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Intzidentearen kokapena.</li> <li>- Sarbideen definizioa.</li> <li>- Sarbideen kontrola.</li> <li>- Ikerketa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	
ESKU HARTZEKO ZERBITZUA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laguntza / Koordinazioa / Zuzendaritza.</li> </ul>	
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: MENDI-ATALA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza operatiboa.</li> <li>- Kokapena.</li> <li>- Istripua izandakoen erreskatea/salbamendua.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	GERORATUA
UEV-EEL EUSKAL ESPELEO LAGUNTZA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurkitzea.</li> <li>- Asistentzia sanitarioa zuloan Istripua izandakoen erreskatea/salbamendua.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: ATAL AERONAUTIKOA (HELIKOPTEROAK/DRONEAK)		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Ekipoak eramatea.</li> <li>- Materiala garraiatzea.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	
SUHILTZAILAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea/salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	
GURUTZE GORRIA - DYA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza psikologikoa.</li> </ul>	
FORU ALDUNDIKO MENDI ETA NATUR INGURUNEO ZERBITZUA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sarbideen definizioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	FASEA
OSAKIDETZA	Istripua izandakoak daudela.	- Asistentzia sanitarioa. - Ebakuazioa.	GERORATUA
UDALZAINGOA		- Laguntza logistikoa. - Laguntza teknikoak.	
UDALEKO BABES ZIBILEKO TALDEA			
PRENTSA KABINETEA		Berezkoak.	
METEOROLOGIAKO EUSKAL ZERBITZUA		Informazio meteorologikoa.	

### **3.- URETAN**

- U1: Itsas salbamendua (kanpoko urak).**
- U2: Itsasertzeko salbamendua.**
- U3: Salbamendua barruko uretan**

## **ITSAS SALBAMENDUA (KANPOKO URAK): U1**

**U1:** Itsas salbamendua (kanpoko urak). Itsaso zabalean pertsonak edota ondasunak salbatzea (baita nabigatzen ari diren ontzietako suteetako salbamenduak ere).

### **DATUAK BILTZEA:**

SOS-DEIAKek bete beharreko datuak, mota honetako intzidenteren baten berri ematen diotenean:

#### **– LEKUA:**

- Azken kokapen ezagun/ustezkoaren (latitudea eta longitudea) eguna eta ordua.
- Ustezko ibilbidea

#### **– INTZIDENTEAREN OINARRIZKO DATUAK:**

- Intzidentearen garapena
- Inplikatuaren kopurua eta egoera:
  - Adina
  - Egoera fisikoa eta psikikoa
  - Ekipamendua
- Eskuko telefonoaren edo telefono finkoaren zenbakia

#### **– ITSASONTZIAREN DATUAK:**

- Izena eta adierazlea
- Matrikula eta pabiloia (kapitainaren/patroiaren nazionalitatea)
- Ontzi-mota: propulzio mekanikoduna (zamaontzia edo bidaiariak eramatekoa), belaontzia / piragua / uretako motorra, etab.
- Ezaugarriak
- Zama eta kantitatea
- Baldintza meteorologikoak: itsasoaren egoera eta marea orduak

#### **– BERRIEMAILEAREN DATUAK ETA INTZIDENTEAREKIN DUEN LOTURA**

## ITSAS SALBAMENDUA (KANPOKO URAK): U1

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	MOBILIZAZIOA
SOS-DEIAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arreta 112.</li> <li>- Koordinazioa.</li> <li>- Zerbitzuen mobilizazioa.</li> <li>- Kontrola eta jarraipena.</li> </ul>	AUTOMATIKOA
ERTZAINZA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berezkoak.</li> </ul>	
ITSAS SALBAMENDURAKO ESKUALDE-ZENTROA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berezkoak.</li> </ul>	
OSAKIDETZA	Istripua izandakoak daudela.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Asistentzia sanitarioa.</li> <li>- Istripua izandakoen sailkapena, hasierako egonkortzea eta lekualdatzea.</li> <li>- Osasun-baliabideen koordinazioa.</li> </ul>	
GURUTZE GORRIA	Aurkitua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Salbamendu azkarra.</li> </ul>	
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: URETAKO INGURUNEAREN ATALA	Aurkitua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea / salbamendua .</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: ATAL AERONAUTIKOA (HELIKOPTEROAK)	Aurkitua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> </ul>	
ESKU HARTZEKO ZERBITZUA		Laguntza / Koordinazioa / Zuzendaritza.	
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: ATAL AERONAUTIKOA (HELIKOPTEROAK/ DRONEAK)		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipo eta material teknikoak eramatea.</li> <li>- Bilaketa, salbamendua eta ebakuazioa.</li> <li>- Salbamendurako laguntza.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Ebaluazioa eta informazioa.</li> </ul>	GERORATUA

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	MOBILIZAZIOA
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: URETAKO INGURUNEAREN ATALA		- Bilaketa, salbamendua eta ebakuazioa. - Laguntza logistikoa.	GERORATUA
GURUTZE GORRIA		- Istripua izandakoak aurkitzea. - Istripua izandakoen salbamendua. - Laguntza teknikoak. - Laguntza logistikoa. - Laguntza psikologikoa.	
SUHILTZAILAK	Sutea ontzia porturantz doala	- Itzaltzea. - Istripua izandakoen erreskatea/ salbamendua. - Laguntza logistikoa. - Laguntza teknikoak.	
UDALZAINGOA		- Laguntza logistikoa. - Laguntza teknikoak.	
UDALEKO BABES ZIBILEKO TALDEA			
ARRANTZA- KOFRADIAK		- Laguntza logistikoa. - Laguntza teknikoak.	
BILBOKO-PASAIKO PORTUAK / EUSKO JAURLARITZAKO PORTU ZUZENDARITZA		- Laguntza logistikoa. - Laguntza teknikoak.	
PRENTSA KABINETEA		Berezkoak.	
METEOROLOGIAKO EUSKAL ZERBITZUA		Informazio meteorologikoa.	

## **ITSASERTZEKO SALBAMENDUA: U2**

- **U2:** Itsasertzeko salbamendua. Itsasertzean edo kostaldean dauden pertsonak eta/edo ondasunak salbatzea edo bertan dauden gorpuak berreskuratzea.

Kosta: Itsasoarekin mugakidea den lurra.

Itsasaldea: Itsasgoran ur azpian geratzen den kosta zatia eta ur gainean itsasbeheran.

### **DATUAK BILTZEA:**

SOS-DEIAKek bete beharreko datuak, mota honetako intzidente baten berri ematen diotenean:

#### **– LEKUA:**

- Izena eta udalerria.
- Sarbideak (errepidez, pistaz edo bidez). Koordinatuak: AML (Advanced Mobile Location / Kokapen Mugikor Aurreratua), APP SOS Deiak, WhatsApp, GPS.
- Ingurune-mota (itsasoa, itsaslabarra, hondartza...)
- Azken kokapen ezagun/ustezkoaren eguna eta ordua.
- Usteko ibilbidea.

#### **– INTZIDENTEAREN OINARRIZKO DATUAK:**

- Intzidentearen garapena
- Jarduera-mota
- Eragindakoak:
  - Inplikatuak kopurua eta egoera:
    - Adina
    - Egoera fisikoa eta psikikoa
    - Ekipamendua
- Nor den/ nortzuk diren, jakiten bada
- Eskuko telefonoaren edo telefono finkoaren zenbakia
- Ondasun-mota:

*Ontzia:*

*Izena eta adierazlea*

*Matrikula eta pabiloia (kapitainaren/patroiaren nazionalitatea)*



*Ontzi-mota: propulzio mekanikoduna (zamaontzia edo bidaiariak eramatekoa), belaontzia / piragua / uretako motorra, etab.*

*Ezaugarriak*

*Ibilgailua*

*Noraezean doan objektua*

– **BALDINTZA METEOROLOGIKOAK**

Baldintza meteorologikoak: Itsasoaren egoera eta marea orduak

– **BERRIEMAILEAREN DATUAK ETA INTZIDENTEAREKIN DUEN LOTURA**

## ITSASERTZEKO SALBAMENDUA: U2

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	MOBILIZAZIOA
SOS-DEIAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arreta 112.</li> <li>- Koordinazioa.</li> <li>- Zerbitzuen mobilizazioa.</li> <li>- Kontrola eta jarraipena.</li> </ul>	AUTOMATIKOA
ERTZAINZTA		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Intzidentearen kokapena.</li> <li>- Sarbideen definizioa.</li> <li>- Sarbideen kontrola.</li> <li>- Ordena publikoa zaintzea.</li> <li>- Sarrera- eta irteera-bideak gaitu larrialdietako ibilgailuetarako.</li> <li>- Ikerketa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Trafikoa eta errepide-sarea kontrolatzea.</li> <li>- Trafikoaren desbideratzeak zehaztea.</li> </ul>	
OSAKIDETZA	Istripua izandakoak daudela.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Asistentzia sanitarioa.</li> <li>- Istripua izandakoen sailkapena, hasierako egonkortzea eta lekualdatzea.</li> <li>- Osasun-baliabideen koordinazioa.</li> </ul>	
ERTZAINZAREN ZAINZTA ETA ERRESKATE UNITATEA: ATAL AERONAUTIKOA (HELIKOPTEROAK)	Istripua izandakoa aurkitua edo/ eta bizi-arriskua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurkitzea.</li> <li>- Istripua izandakoen erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Ekipo eta material teknikoak eramatea.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	
ITSAS SALBAMENDURAKO ESKUALDE-ZENTROA		Berezkoak.	
HONDARTZETAKO SALBAMENDU ETA SOROSPEN POSTUAK	Aurkitua. Bainu-denboraldia.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Osasun-arreta.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	MOBILIZAZIOA
SUHILTZAILAK	Istripua izan duena itsaslabarrean dago, lehorretik joateko moduko harkaitz-eremuan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	AUTOMATIKOA
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: MENDI-ATALA	Istripua izan duena itsaslabarrean dago, lehorretik joateko moduko harkaitz-eremuan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: URETAKO INGURUNEAREN ATALA	Ur-lamina batean aurkitua / bizi-arriskua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izandakoen erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Laguntza teknikoak.</li> </ul>	
GURUTZE GORRIA	Ur-lamina batean aurkitua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurkitzea.</li> <li>- Istripua izandakoen erreskatea / salbamendua.</li> <li>- Istripua izandakoen ebakuazioa.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> <li>- Osasun-arreta.</li> <li>- Laguntza psikologikoa.</li> </ul>	
ESKU HARTZEKO ZERBITZUA	Salbu eta arriskurik gabeko atoi arruntetan eta noraezean dauden objektuetan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laguntza / Koordinazioa / Zuzendaritza.</li> </ul>	

ZERBITZUAK	BALDINTZAK	EGIN BEHARREKO LANAK	MOBILIZAZIOA
ERTZAINZAREN ZAINZA ETA ERRESKATE UNITATEA: ATAL AERONAUTIKOA (HELIKOPTEROAK/ DRONEAK)		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipo eta material teknikoak eramatea.</li> <li>- Bilaketa, salbamendua eta ebakuazioa.</li> <li>- Erreskatean laguntzea.</li> <li>- Laguntza logistikoa.</li> </ul>	GERORATUA
